

Olatz Arrieta kazetariak irekiko du txotx denboraldia Astigarragan

Olatz Arrieta EiTbko kazetariak zabalduko du heldu den urtarilaren 16an 2019ko txotx denboraldia Astigarragan, Gartziategi sagardotegian.

02/01/2019

NAIZ | DONOSTIA | 15:37



Txotx denboraldia urtarilaren 16an hasiko da Astigarragan.

Sagardoaren Lurraldeak datorren urtarilaren 16an irekiko du 2019ko txotx denboraldia eta sagardoaren uzta aurkeztuko du. Denboraldiari hasiera emateko Olatz Arrieta EiTbko kazetaria gonbidatu dute, Gartziategi sagardotegira. Bruselako berriemailea da Arrieta.

Sagardo Berriaren Eguna 12.00etan hasiko da, Sagardoetxean egingo den aurkezpen ekitaldiarekin; bertan izango dira Zorione Etxezarraga Astigarragako alkatea eta Sagardun Partzuergoko lehendakaria eta Lakua nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak. Uzta berria aurkeztu eta sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarrien berri emango dute, sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenekin batera.

Jarraian, 12.45ean, Sagardoetxeako sagastian sagarrondo berri bat landatuko du Olatz Arrietak. «Ekitaldi sinboliko horrekin, naturaren dinamikotasuna eta berritzeko ahalmena azaldu nahi dira, urtetik urtera mahai batean sagardoaren bueltan esertzeko aukera eskaintzen baitigu», adierazi dute Sagardoaren Lurraldeko arduradunek.

Ondoren, 13.45ean, ekitaldiko unerik garrantzitsuena hasiko da, txotx irekiera hain zuzen ere. Astigarragako Gartziategi sagardotegian, «Hemen da gure Sagardo Berria» oihu eginda lehen kupela irekiko du kazetariak, eta horrela, 2019ko sagardo denboraldi berriari hasiera emango dio.

Iaz **Alberto Iñurrategi mendizale** aretxabaletarrari egokitu zitzaion txotx denboraldia irekitzea.

 IMPRIMIR

 ENVIAR





GARA

Vox, algo muy español más cerca del fascismo que del populismo




GARA

El club de los autócratas crece en este tiempo dislocado ➡



GARA

EL EUSKARA NO VALE NADA EN TUTERA Y EL ESTIGMA CONTINÚA ➡



7K

Lizunaren edertasun ezkutua



GAUR8

«Jainkoaren berri ematera» joandako misiolaria ere berehala garbitzen dute Ipar Se...

PUBLICIDAD

Badago mundu bat

URTE BERRI ON



PUBLICIDAD



LO + VISTO



Reflexiones de un joven pastor vasco sobre consumo, precios, sobera...



Imágenes inéditas de Argala en el aniversario de su muerte



Erorikoa izan du Gorka Izagirrek Ormaiztegiko ziklo-krosean

EUSKAL HERRIA

- Adimen emozionalak eskola errendimendua hobetzen du, EHUko ikerlan batek dioenez
- Ortuzar reclama a EH Bildu y Sortu siempre tanta «rotundidad» como en el ataque de Amurrio
- Orain Bai y Podemos no alcanzan un acuerdo para dividir el grupo parlamentario

MUNDO

- Militares toman la radio estatal de Gabón en un intento de golpe para «salvar del caos» al país
- Se reanuda el juicio contra Pablo Ibar con las alegaciones de la defensa
- El hackeo masivo cuestiona al ministro de Interior alemán 
- La trata de personas continúa impune en zonas de conflicto 

ECONOMÍA

- Datuen analisia eta zibersegurtasuna, MUren eskaintza berrien artean
- Cinco trabajadores intoxicados en una siderúrgica de Mungia
- ELA suspende la huelga indefinida en oficinas de Bizkaia para unir fuerzas sindicales

- «Seguimiento total» en el primer paro de dos horas en la empresa GTH de Derio 

CULTURA

- ‘Green Book’, ‘Bohemian Rhapsody’ y ‘Roma’ se reparten la gloria en los Globos de Oro
- «Romeo y Julieta» en clave circense, de la mano de Markeliñe 
- «Found footage» musikala Mursegoren eskutik
- Trilogiaren bigarren bolumena aurkeztu du Yo Ciervo taldeak

DEPORTES

- Baskonia regresa a una pista que no se le da bien 
- Rulli aprovechó la oportunidad del Bernabéu para reivindicar su nivel 
- Mal de muchos, consuelo forzoso 
- Jon Rahm, octavo en Hawai en el torneo que venció Schauffele 

naiz:

CONTACTO

QUIÉNES SOMOS

FAQ

PUBLICIDAD

AVISO LEGAL

